

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

Tolosako Udaletxean, 2015eko otsailaren 24an, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 24 de febrero de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakari ordezeko funtzioetan:

Lore Agirre Zipitria

Bertaratutako zinegotziak:

Hasier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Jon Koldobika Arsuaga Artola  
Mikel Arreseigor Astibia  
Silvana Ostiza Goikoetxea  
Ainhoa Etxeberria Aranburu

Olatz Peon Ormazabal  
Jon Aldazabal Etxeberria  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Miren Ezkiaga Etxezarreta  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Ez bertaratua:

Ibai Iriarte San Vicente  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Ondorengo akta onartzea:

2015eko urtarrilaren 27ko Osoko Bilkurakoa.

1.-Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 27 de enero de 2015.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

- |   |   |
|---|---|
| 2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:<br><br>2015eko urtarrilaren 1etik 31ra (2015/1-2015/180)      | 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:<br><br>Del 1 al 31 de enero de 2015 (2015/1 al 2015/180)             |
| 3.- Zinegotzi kargua hartzea.   | 3.- Toma de posesión del cargo de concejala.  |
| 4.- Atariari eta 28 kanalari diru-laguntza emateko proposamena.   | 4.- Propuesta de subvención económica a Ataria y a 28 kanala.   |
| 5.-Administrazio Kontseiluaren funtzioetan: Tolosa Lotzen, S.A., erakundearen 2014ko kontuen formulazioa. | 5.-En funciones de Consejo de Administración: formulación de las cuentas de 2014 de la sociedad municipal Tolosa Lotzen, S.A. |
| 6.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren onarpena.   | 6.- Aprobación de la declaración institucional del 8 de marzo.  |
| 7.- Erregistro Zibilei buruzko mozioa.  | 7.- Moción sobre los registros civiles.   |
| 8.- Tolosaldea Sahararekin G.K.E.-k aurkeztutako mozioa.  | 8- Moción presentada por Tolosaldea Sahararekin G.K.E.  |
| 9.- Gobernu Taldeak aurkeztutako mozioa "Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara" lemapean.                | 9.- Moción presentada por el equipo de gobierno con el lema "Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara".                         |
| 10.- Galde-erreguak   | 10.- Ruegos y preguntas.  |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1.- Ondorengo akta onartzea:**

**2015eko urtarrilaren 27ko Osoko**

**1.-Aprobación de la siguiente acta:**

**Sesión Ordinaria de 27 de enero de 2015.**

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

### **Bilkurakoa.**

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

#### **2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2015eko urtarrilaren 1etik 31ra (2015/1-2015/180)**

#### **2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

**Del 1 al 31 de enero de 2015 (2015/1 al 2015/180)**

Alkatetzak 2015eko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean (2015/1-2015/180) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **3.- Zinegotzi kargua hartzea.**

#### **3.- Toma de posesión del cargo de concejala.**

Bertaratutakoei jakinarazten zaie Hauteskunde Batzorde Nagusiak, 2015eko otsailaren 6an egindako agiriaren arabera, Tolosako Udaleko zinegotzia izendatu duela Silvana Ostiza Goicoechea, Bildu-Eusko alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (Bildu) taldearen izenean.

Izendapen berriaren arrazoa da Rosa Maria Urkola Irigoien bere zinegotzi karguari uko egina, ontzat eman zelarik 2014ko abenduaren 30eko Udal Plenoan.

Beraz, izendatu berria izan denak hautaezintasun arrazoirik ez duela zinegotzi kargua hartzeko aitortu duenez eta bete dituen gainontzeko baldintza guztiak, Udalbatzak honako hau

### **ERABAKI DU:**

**Lehen.-** Onartzea Silvana Ostiza Goicoecheari, Tolosako Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (Bildu) taldearen izenean, zinegotzi kargua jabetzan hartzea.

**Bigarren.-** Erabakiaren berri Pertsonal sailari eta Kontuhartzaitzari ematea.

Parte hartzeak:

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: *“Lehenik eta behin esan lau urteko legealdirako sartzan garela Udalean. Zenbait gauzentzat lau urte oso motz geratzen dira, beste zenbaitentzat luze. Azken batean, norberak*

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

*bere bizitzako lau urteak Udalari eta herriari dedikatzeak suposatzen du erantzukizunez zinegotzi kargua hartzeak. Bizitzako gorabeherek aurrera jarraitzen dute eta, ondorioz, Miren Urkola zinegotziari denbora tarte batean Udaleko zuzeneko orduak utzi eta bere burua zaindu beharra egokitu zaio. Hemendik, besarkada bat eta laister gure artean burubelarri lanean ikusteko itxaropenari eutsiko diogu. Era berean, bere hutsunea betez, ongi etorria eman nahiko genioke Silvana Ostizari, laguntza eskatu bezain pronto, berriro ere, lehenengo mailara ateratzeko prestutasuna erakutsi digulako. Zinegotzi kargua ez da zuretzat berria Silvana, gubenerruan egon zintan, ilegalizazio garaian hitza kendu zizueten, baina garaiak aldatu dira eta, legealdi honetan, Tolosako pentsatzeko modu guztiek dute ordezkartza eta hitza. Beraz, berriro ere, osoko bilkura honek itzultzen dizu aurrez kendutako hitza. Ongi etorri!”*

... Silvana Ostiza Goicoechea, Bildu: “ Eskerrik asko. Arratsaldeon guztiori. Aitortu behar dut oso arraro sentitzen naizela berriro ere hemen eserita. Nere bizitzaren barruan, pentsamendu eta asmoetan ez zegoen berriro Udaletxe honetara itzultzea. Hiru aldiz egokitu zitzaidan hemen egotea: bat, oposizioan; bestea, Gubernuan, eta, hirugarena, hautetsi modura, baina apartheidean. Ilegalizazio garaiak izan ziren, gogorak, eta, hemen ere, gure talde politikoak sufritu zuen apartheida. Lore Agirre zinegotziak esan duen bezala, garaiak aldatu dira eta halaberrez niri egokitu zait hutsunea betetzea legealdi hau bukatu arte. Ez da asko falta, hilabate gutxi dira, baina Mirenek berak eramaten zituen ardurak orain nik hartuko ditut. Bihartik aurrera lanean ikusiko gara Udaletxean, eta baita kanpoan ere.”

#### **4.- Atariari eta 28 kanalari diru-laguntza emateko proposamena.**

#### **4.- Propuesta de subvención económica a Ataria y a 28 canales.**

10/1982 Euskararen legeak dio EAEko berezko hizkuntza euskara dela . Gure komunitatean gaztelania ere hizkuntza koofiziala da. Gaztelaniaren kasuan gure erakundeei ez dagokie aparteko betebeharririk: bermatu egin behar dituzte haien hiztunen eskubideak, beste edozein eskubide bezala. Alabaina, euskal erakundeek badute euskararekiko eginkizun sahiestezina: biziraupena ziurtatzea. Hain zuzen, euskaldunok bakarrik dugulako euskara, guri dagokigu haren biziraupenaren ardura. Helburu hori lortzeko politikak landu eta neurriak hartu behar dituzte.

Tolosako udalak azken hiru hamarkadetan gure udalerrian euskararen normalizazioa lortzeko berariazko politikak landu eta egikaritu ditu. Politika horiek gizartetik bertatik sortutako ekimenekin eta beste erakunde publikoetatik landutako egitasmoekin uztatzen ahalegindu da. Begi bistakoa da euskarak aurrerakuntza nabarmena egin duela gure herrian bai ezagutzaren eta baita erabileraren aldetik ere.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

Tokiko komunikabideen esparrua izan da euskaraz azken bi hamarkadotan irabazi duen espazioetako bat. Tokiko komunikabideek bi helburu nagusi dauzkate:

1. Herritar euskaldunei euskaraz landutako eta produzitutako informazioa eskura jartzea.
2. Informazio lokala eskainiz herri eta eskualdeetako hizkuntza-normalizazio prozesuak indartzea. Bertatik bertara landutako informazio hori mundua ikusteko modu propioa lantzeko aukera ematen du eta garrantzia handikoa da informazio-iturri propioak izateak, hurbilekoa ere albistea izan dadin.

Euskaraz ari den hedabideak hizkuntzak dituen mugak ditu. Euskara ez dago egoera normalean, nekez lehia daitezke euskarazko hedabideak hizkuntza indartsuagokoekin, pareko baldintzarik gabe. Ezin da euskarazko hedabide baten biziraupena jarri erabateko auto-finantziazioaren baldintzapean. Halaber, onartuta dago gizartean, galdutako oreka ez dela berreskuratzen berdintasuna erabilita, adibidez, genero berdintasunera bidean onargarriak direla emakumeen aldeko ekintza positiboak. Kontzeptu bera aplika dakioke egoera ahulagoan dagoen hizkuntzari baldin eta normaltasun baterantz eraman nahi bada.

Aurreko paragrafoan aipatutako izpiritua kontuan harturik, Tolosako udalak hasiera-hasieratik diruz lagundu ditu Tolosaldeko euskarazko tokiko komunikabideak, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak. Ezinbesteko tresna bezala ikusi ditu bai euskararen normalizazioa indartzeko baita herritarrei tokiko informazio multimedia eskaintzeko ere. Are gehiago, legegintzaldi honen hasieran, eskualdeko beste udalekin batera, orduan existitzen ziren lau proiektu komunikatiboak elkar lanera eta konbergentziara bultzatzeko ekimen bat abiatu zuen. Honelaxe genion udal honen Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak **'Hizkuntza Politika eta Hezkuntza: filosofía, ideiak eta jarduerak 2012-2025 epealdirako'** izeneko dokumentuan:

*'Tolosaldean euskarazko eskualde prentsa, telebista eta irratia ditugu. Bakoitzak berejabego eta egitera propioa du. Plantea daiteke erakunde edo enpresa bakar bat egitea, baina horrek udalaren jarduera esparrua gaintzen du. Hala ere, ideia hori mahairen gainean jarriko du udalak. Bien bitartean euskarazko komunikabide horiek diruz laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du. Hala ere, udalaren ustea da komenigarria izango litzatekeela hedabide horien artean sinergiak bilatzen saiatzea, eskaintza informatiboa hobetzeko eta ugaritzeko helburuarekin. Halaber, komunikabide horiek Tolosaldeko herritarrei eskaintzen dieten produktu informatiboa erakargarriagoa egiteko egin beharko liratekeen urratsez gogoeta egitea begi onez ikusiko luke udalak.'*

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

Konbergentziarako prozesu horren ondorioz 2011 lau proiektu komunikatibo zirenak bi dira 2015ean: TKT komunikazio-plataforma multimedia papera, internet eta irratia jorratzen dituen *Ataria* markarekin eta 28 kanala bereziki telebista egiten duena. Bestalde, 2014ko azarearen 26an bi proiektu horiek elkarlan operatiborako hitzarmen bat sinatu zuten sinergiak indartzeko eta baliabideak elkarbanatzeko.

Hortaz, *Ataria* eta *28 kanala* dira Tolosa eta Tolosaldean euskarazko tokiko informazioa lantzen duten komunikabide orokor bakarrak. Bi-biak errotuta daude eskualdeko gizartean eta erreferente dira tokiko informazioaren esparruan. Izaera hori onartzen die Tolosako udalak.

Konbergentziarako prozesu horren baitan aipatutako komunikazio-enpresek behin baino gehiagotan adierazi izan diote udalari zein lagungarria izango litzatekeen epe ertainerako finantzazio-marko bat eratzea, beren proiektuak sendotzeko beharrezkoa den lasaitasun ekonomikoa emango liekeelako. Gainera, finantzazio-marko horren neurria ere iradoki digute antzeko proiektu komunikatiboetan usatutako irizpideak oinarri hartuta: Atariaren kasuan, 5 €/biztanleko eta 28 kanalaren kasuan 2 €/biztanleko. Udal honek orain arte emaniko diru-laguntzaren kopurua ez da ailegatu indize horietara: 2014an Atariaren kasuan 4,17€/biztanlekoa izan da diru-laguntza eta 28 kanalaren kasuan 1,94 €/biztanlekoa.

Udalak egokia deritzo komunikabideek eginiko eskaerari eta, ondorioz, hiru urteren buruan aipatutako laguntza-indizera iristeko modua egingo du.

Aurreko paragrafoetan deskribatutakoa kontuan harturik, Tolosako udalak, gehiengoz, Bilduko eta Aralarko zinegotzien aldeko botoekin, eta EAJ/PNVko zinegotzien abstentzioarekin, honokoa

### **ERABAKI DU:**

**Lehen.-** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM, (*Ataria*) eta Komunikabideak, SL, sozietatea (28 kanala) tokiko komunikabideak diruz laguntzeko konpromisoa hartzea hiru urterako.

**Bigarren.-** Hiru urte horietan gorago aipatutako laguntza-indizera iristeko konpromisoa adieraztea.

**Hirugarren.-** Atariak eta 28 kanalak udalaren diru-laguntza segidan aipatzen den moduan jasoko dituztela xedatzea:

- a. Atariak: 2015ean 78.000 €-ko gastua onartzen zaio 0900 480.01.33510 diru-partidatik. Halaber; 2016an 84.000 €-ko eta 2017an 90.000 €-ko kreditu-konpromisoa esleitzen zaio

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

- b. 28 kanalak: 2015ean 36.000 €-ko gastua onartzen zaio 0900 480.01.33510 diru-partidatik. Halaber, 2016an eta 2017an 36.000na €-ko kreditu-konpromisoa esleitzen zaio.

**Laugarren.-** Finkatzea Atariak zein 28 kanalak gutxien-gutxien jarraian aipatzen diren komunikazio-produktuak ekoiztu beharko dituztela aipatutako diru laguntza jaso ahal izateko hiru urteotan zehar:

- a. Ataria:
  - i. Zortzi orriko egunkaria asteartetan, asteazkenetan eta ostegunetan eta ostiraletan astekaria, abuztuan izan ezik.
  - ii. Ataria irratia 24 orduetan emititzea eta gutxienez 4 orduko programazio propioa astelehenik ostiralera, abuztuan izan ezik.
  - iii. Ataria.info informazio-webgunea eguneratu eta elikatzea urte osoan zehar.
- b. 28 kanala:
  - i. Eguneko 24 orduko telebista-emisioa urte osoan zehar
  - ii. Produkzio propio berria emisio orduen % 20 gutxienez izatea.
- c Hitzarmen bidez zehaztuko dira diru-laguntza horiek jasotzeko baldintza partikularrak.

**Bostagarren.-** Erabaki honen berri ematea komunikabide enpresei eta Kontuhartzaitzari.

Parte hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: "Osoko bilkura honetan, orain dela 4 urte, legegintza honetan gure buruari lan bat betetzeko beharra jarri genion, izan ere, pentsatu genuenean lau urte hauetarako zein hizkuntza politika garatu nahi zuen udal gobernu honek, argi genuelako tokiko komunikabideen esparruak berebiziko garrantzia zuela. Halaxe jaso genuen landu genuen dokumentuan, eta gerora baita ere, Euskara batzordean tokiko komunikabideek zeukaten garrantzia eztabaidatu eta onartu zen dokumentuan. Eskualde mailan zeuden 4 tokiko komunikabideak gogoeta prozesu batera bultzatu genituen, bi asmorekin: batetik, bere eskaintza komunikatiboei buruz gogoeta egin zezaten, eta, ondoren, ea lauak antolatu zitezkeen, hau da, Hitza, Galtzaundi, Txolarre Irratia eta 28 Kanala, komunikabide enpresa bakarrean, lanean aritzeko era koordinatuan. Prozesu bati ekin zioten eta horren emaitzak ez dira izan, neurri batean, udal gobernuak nahi zituenak, hau da, 4 komunikabideak elkarrekin aritzea. Hala ere, orain 2 taldera murriztu dira komunikabideak. Batetik, Ataria markapean biltzen direnak, zeintzuek internet bidezko informazioa, irratia eta prentsa idatzia lantzen duten, eta, bestetik, 28 kanala, nagusiki, telebista lantzen duena, baina irratia kanal bat ere baduena.

Gainera, bi komunikabide hauek, joan den azaroan, elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuten, eta gauzatzen ari diren lehen lanen berri eman digute aste honetan. Ez badugu lortu enpresa batean, talde batean, elkarrekin aritzea, bi taldeak elkarlanean aritzea lortu da eta hau emaitza ona da. Izan ere, bai Tolosaldean eta Euskal Herri osoan tokiko komunikazio talde sendoak behar dira komunikazioa euskaraz jaso ahal izateko.

Prozesu horretan guztian, hasieratik esan genien komunikabideei gure asmoa zela beraiekin epe luzeko edo ertaineko hitzarmenak sinatzea, urtez urte zer eta nola negoziatzen egon gabe. Hori beti izan da euskalgintzaren eskaria erakunde publikoei, bai Udaletxe, Diputazio edo Jaurlaritzari. Bere garaian

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

*agindu genien udal honek finantzazio ahalegina handituko zuela eta hori egin dugu azken urteetan. 2011 eta 2015era bitartean, % 43 handitu dugu tokiko komunikazioei ematen zaien dirulaguntza.*

*Komunikabideek jakinarazi ziguten nolako minimoa ikusten zuten udalaren ekarpena. Parametro batzuk jarri zituzten, Atariaren kasuan, 5 euro biztanleko, eta 28 kanalako kasuan, 2 euro biztanleko. Egokiak iruditu zitzaizkigun beste eskualdeetako parametroak kontutan hartuta eta konpromisoa hartu dugu 3 urteetan parametro horietara iristea.*

*Ataria urrutiago dago eta horregatik 3 urteko prozesua beharko du bertara iristeko, inbertsio handiagoa suposatzen baitu. Baina 28 kanalaren kasuan, praktikoki bertan gaude eta 1000 euroren igoera suposatzen du urteetan, beraz aurten bertan aplikatzea erabaki dugu.*

*Beraz, gure ustea da, gaur hartzen dugun erabakiarekin, lortuko dugula, batetik, sendotzea Tolosako tokiko euskarazo komunikabideak, eta, bestetik, denbora emango diegula beraien produktua hobetzeko, beraien gabeziak hobetzeko eta elkarrekin lan egiteko. Horrela, bi urte barru, agian, beste egoera batean egongo gara.”*

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV : *“Honen inguruan, zenbaitetan hitz egin dugu Euskara batzordean. Gu ados gaude 3 urteko dirulaguntza ematea eta, euskarazko hedabideei etorkizun egonkor horren bila, jakin dezaten, behintzat, 3 urte barru zenbat diru izango duten. Iruditzen zaigu honakoa ezinbestekoa dela, eta egiten den planteamendurekin ados gaude. Hala ere, ez gaude ados une honetan erabakitzea Atariari, urtez urte, 6000 euro igotzeko erabakiarekin. Ados gaude, aurten 6000 euro igotzearekin; guk nahi duguna da, 28 kanalarekin egiten den bezala, hori ixtea eta 3 urtetan berdin uztea, eta, gainera, bide bat irekita uztea hurrengo urtean, eta datorrenean nahi bada, eskuartean dauzkaten proiektuen arabera, diru gehiago ematea. Nik uste hori arrazoizkoa dela eta hori da guk Euskara batzordean proposatutakoa. Hori ez da onartu eta argumentuak eman ditu Iñaki Irazabalbeitiak. Bestalde, hau planteatzen da erabaki bakar bat bezala eta ez gatoz bat Atariarekin planteatzen denarekin. Guk hitzarmenean zenbait aldaketa planteatzen ditugu; hauek pasa egin zaizkizue, ondorengoa planteatuz: diru laguntza mantentzea eta atal bat gehitzea hitzarmenean, non aukera ematen den, urtez urte, diru gehiago emateko eta ez une honetan. Horregatik gaude hitzarmen honen aurka; ez gaude igoeraren kontra, baina ez dugu une honetan egitea planteatzen. Halaber, 28 kanalarekin planteatzen denarekin ados gaude. Orduan, bi hedabideen dirulaguntza plantemendua akordio bakar batean doanez, ez dakigu nola bozkatu, eta abstentzioa planteatuko dugu.”*

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: *“Iñakik Irazabalbeitia zinegotziak aipatu duenaren ildotik, nik uste, diru kontutan sartu baino, gaur hemen planteatzen den hitzarmenean, epealdiak ikaragarritzko garrantzia duela. Bai Iñakik eta baita zuk ere (Jokin Azkue) argumentazioetan erabili duzue tokiko komunikabideek beren lana egiten jarraitzeko halako egonkortasuna ezinbestekoa dela, eta 3 urteetako den hitzarmen planteamendu honek honakoa bilatzen duela. Orain arte, urtez urteko proiektuen aurkezpenen bitartez eraman da aurrera, baina hori da helburua; hau da, azkenean, Tolosaldeko komunikabideei bere osotasunean halako egonkortze bide bat eskaintzea. Iñakik esan duen bezala, 2012an hasi zen bateratze prozesua; horretarako beharra ikusi baitzuten komunikabideek beraiek eta baita Udalean gaudenok ere.*

*Atzera begira, euskararen semaforoak, 2011. urtean, elkarrizketa bat egin zien 4 komunikabideei, eta denek ikusi zuten ezinbestekoa elkarlana. Orduan, 28 kanalak ere hala zioen: “Baliabide bateratuak jarri behar dira errentagarriak izateko: teknologia, administrazioa, publizitatea, sinergien estrukturak ahalbidetu, etab. 28 kanalak iraungo badu, aipatutako sinergia estrukturaren beharra dauka.” Argi*

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

*zeukaten komunikabide guztiek aipatzen zituzten argumentazioak berdinak zirela, hau da, iraun behar bazuten, bateratzea ezinbestea zeukatela, bai baliabide ekonomikoengatik, eta baita kazetaritza eta komunikazioa, egun, ematen ari diren eraldaketarengatik ere. Argi izan arren, denek ikusi dugu 28 kanala ez dela bateratu. Orain, nik, Bilduko ordezkari bezala elkarlanean jarraitzea animatuko nituzke, beldurrik gabe, erantzukizunez, arduraz eta esku zabaltasunez, izan ere, azkenean, ibilbideak elkartzeko joera izan behar du, tokiko komunikabide indartsu bat izatera iritsiz, eskualde guztira iritsiz eta bertan kalitatezko produktu bat eskainiz. Hala ere, bitartean, eta egoera ikusita, Udaletik planteatzen da, tokiko baliabideei baldintza berdinetan edo eurek eskatzen duten baldintzetan, proposamen hau osotasunean adostea. Azken batean, kontu ekonomikoetan sartzeak aitzakia usaina izan dezake. Izan ere, badakigu beste hitzarmenetan eurekin adostutako zenbatekoak ematera iritsiko zela Udala.”*

**5.-Administrazio Kontseiluaren  
funtzioetan: Tolosa Lotzen, S.A.,  
erakundearen 2014ko kontuen  
formulazioa.**

**5.- En funciones de Consejo de  
Administración: formulación de las  
cuentas de 2014 de la sociedad  
municipal Tolosa Lotzen, S.A.**

Tolosa Lotzen,SA, sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2014. urteko kontuen azalpenak izan ondoren, aho batez, erabaki du Junta Orokorrari honakoa proposatzea:

**Lehen.-** Onartzea 2014 ekitaldirako urteko kontuak. Urteko kontuak administratzaile guztiek sinatuta daude. Sozietateak ETERen balantzea formulatu dezake eta ez dago behartuta kontuak auditoria baten bidez egiaztatzen, ezta gestio txosten bat egitera ere; hori guztia, bat etorritz, honako xedapen hauekin: azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretua.

**Bigarren.-** Emaizaren banaketa horrela adieraztea:

Ekintaldiko emaitza hau izan da: 574.683,61 euroko galerak.

<b>Banaketa oinarria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Galerak eta irabaziak	574.683,61
Guztira	574.683,61
<b>Banaketa</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Etorkizuneko emaitza positiboekin	
kompentsatzeko	-574.683,61
Guztira	-574.683,61

**Hirugarren.-** Erabaki honen berri Junta Orokorrari eta Kontuhartzaitzari ematea.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

Parte hartzeak:

... Idazkaria: “Nahiz eta Batzar Orokorraren funtzioetan adierazi banatutako gaizerrendan, esan behar du Administrazio Kontseiluaren funtzioetan, Tolosa Lotzen S.A erakundearen 2014ko kontuen formulazioa proposatzen baita.”

... Kontuhartzailea: “Kontuei buruz, formulatzea da eta kontseilari bezala, zuei dagokizue kontu horiek sinatzea. Gero, Idazkariak esan bezala, aurrerago, Batzar Orokor bezala, kontuak onartzea dagokizue.

*Kontuak, 4 puntu dituzte: egoera balantzea, galera- irabazien kontua, ondare erabileraren aldaketa eta memoria orria. Bertan esplikatzen da zein izan den dokumentu horien edukia. Bi datu aipatzeko: memorian oinarrituz, sozietateak aurtan 574.000 euroko galerak ditu. Urtean gertatu den aipagarriena Berazubiko terrenoen salmenata izan da, horren ondorioz, izakinak jeitsi egin dira eta gero baja eman dira sozietatean. Egin dena da sozietateak zeukan mailegua, bere garaian haur eskolako obrak egiteko eskatu zena, kantzelatatu.*

*Erregularizazio bat egin da, baita ere BEZari buruz, horrela aholkatu digutelako. Memorian dago dena jasota. Bai badagoela aldaketa txiki bat, zuzenketa bat azken puntuan, ordaintzen atzerapenei buruzko informazioan. Hauek banatuko dizkizuet: portzentaien kasuan, lehen %100 bazen, orain %89,7 da, eta ez du beste eraginik. Edozein galdera baduzue, galdetu.”*

...Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ/PNV: “Aipatu duzu 574 mila euroko galerak daudela. Ez dut memoria irakurri, barkatu, baina nondik datoz galerak?”

...Kontuhartzailea: “Galera kontablea da, baina gertatu dena da Berazubiko terrenoa saldu denean, salmentaren prezioa terreno horiek kontuetan zeukaten balorea baina txikiagoa izan dela.”

...Lore Agirre Zipitria,Bildu: “Bere garaian, lur horien truke kapital zabalkunde bat egin zenuten, orduan, 2010ean zeukan prezio horretara baloratu zenuten eta horregatik galera kontable hutsa da. Hala ere, aipatu, agian bere momentuan ez zela kapital zabalkunde bat behar eta hauek dira bertatik datozen ondorio horiek. BEZaren inguruan hausnarketa egitea tokatu zaigu, sozietatea erregularizatu egin behar zelako. Adituek zioten, garai horretako akordioa ez zegoela ondo planteatuta, izan ere, kapital zabalkundeak ezin dira egin zerbitzu bat ematearen truke.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Norbaitek aholkatuko zigun hau egitea. Gaizki ulerturik egon ez dadin!”

**6.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren onarpena.**

**6.-Aprobación de la declaración institucional del 8 de marzo.**

Idazkariak mozioa irakurri du. Honek honela dio:

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

“Beste urte batez, martxoaren 8ak, Emakumeen Nazioarteko Egunak, aukera eskaintzen digu munduko emakume guztiek beren eskubideen alde egindako borroka omentzeko eta, aldi berean, egindako bideen azterketa egiteko. Onena litzateke omenaldi honekin ospatuko bagenu egiaz badaudela berdintasunezko gizarteak. Hala ere, egun hau ospatzen segitzen dugu azpimarratzearen ezen, lorpenak lorpen, oraindik geratzen dela, asko geratu ere, zer hausnartu eta aldatu.

Iraganera begiratzen dugunean, aurrerapen handiak ikusten ditugu emakumeen autonomia eta askatasunean. Lorpenak ere ikusten ditugu emakumeenganako legezko diskriminazioa ezabatzeko prozesuan eta, orobat, beren sartzeko-prozesuan hezkuntza-sisteman eta lan-merkatuan. Halaber, aurrerapenak ikusi ohi dugu emakumeen parte-hartzean politika-arloan.

Aurrerapen horiek direla-eta autokonplazentzia edukitzeak, ordea, trabatu egiten ditu gaur egun ere emakumeek jasaten dituzten indarkerien, egiturazko desberdintasunen, onarpen sozialaren eta eguneroko mikromatxismoen identifikazioa. Mugimendu Feministak, emakumeentzat gizonenak bezalako eskubideak eskatzen dituen mugimenduak, egoera horren gaineko arreta erakartzen ari da, berdintasunaren “ameskeria” edo “ilusioa” deitzen diolarik.

Kezka feministek jakinarazten digute pertzepzio horrek eragin negatiboa duela belaunaldietako sektorerik gazteenetan, horiek “normaltzat” hartzen ari baitira kontrol, jazarpen eta indarkeria sexistako jarrerak. Ildo horretatik, eta Emakunde jakinarazten duen bezala, nahiz eta euskal gizartearen zatirik handienak uste duen ezen emakumeen aurkako indarkeria arazo sozial larri bat dela, genero-indarkeria pixkanaka ari da handitzen 30 urtetik beherako bikoteetan.

Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide bat da, adierazpiderik edo ondoriorik larriena. Indarkeria matxista salbuespeneko gertakizun bat ez den neurrian eta gure egunerokotasunean bizi dugun neurrian, lehen mailako arazoa da guretzat.

Aipatzekoa da aurreko urteko adierazpenean abortuaren legearen kontrarreformaren mehatxua aipatzen genuela. Mugimendu feministarekin batera euskal jendartearen gehiengo batek egindako borrokari esker erreforma gelditzea lortu dugula ospatuko dugu. Dena den, emakumeon

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago heltzen ari dira, horrela legearen erreforma nagusia gelditu arren, orain 18 urtetik beherako emakumeek guraso edo tutoreen onarpena beharko dutela abortatzeko. 16 urtetik gora ezkontzea zilegi da, ama izan nahi den edo ez erabakitzea, ordea, ez. Ez du zentzurik eta emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzea du helburu. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala, heteropatriarkala, indartzeko neurriak dira.

Bestalde, krisi-egoera honetan, merkatuen errentagarritasuna handitu nahian, austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan jarriz.

Ekonomiaren oinarrian etxeko lanak eta zaintza-lanak dauden arren, sistema kapitalistak lan hauek gutxietsi egiten ditu. Ezkutuan geratzen dira, sozialki ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan-estatusa bera ukatu egiten die, nahiz eta jakin bizitzaren oinarria direla, lan-indarra sortu eta mantentzen duten lanak direlako. Eta ekonomiaren, aberastasunaren eta lanaren kontzeptuak finantzen munduarekin, lan ordainduarekin, lan-“produktiboa”rekin lotzen dira, guztiaren erdigunean jarriz. Merkatu kapitalista jartzen da ekonomiaren erdigunean eta bizitza honen zerbitzura, alderantziz egin orde.

Etxeko lanen eta zaintza-lanen ardura nagusiki emakumeei ezartzen zaiela kontuan izanda bakarrik uler daiteke emakumeek lan-merkatuan duten leku marjinala eta esplotazio bikoitza. Lan-merkatuan emakumeek gizonetako baino %36,2 gutxiago kobratzen dute. Lanaldi partzialetan dauden %80,9 emakumeak dira. Lan-merkatuak emakumeak bigarren mailako langile gisa erabiltzen ditu, haien lekua, nagusiki, etxean dagoela defendatzen duelako. Sistema kapitalista eta patriarkatua gainditzeko beharra inoiz baino ageriago agertzen zaigu, bizitza ekonomiaren erdigunean jarri ahal izateko, zaintza-lanak errekonozitzeko, sexuaren arabeko lan-banaketaekin bukatzeko, bizitza duinak bizi ahal izateko

Horregatik guztiagatik, Udal honek honako erabaki hau hartzen ditu:

Udal politiketan berdintasuna zeharkakotasunez indartzea, Tolosako Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako III Planean jasotako neurrien garapen, segimendu eta ebaluaziorako behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak bermaturik.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

Parekidetasun Batzordea elkarrizketa-gune eraginkor gisa indartzea, sustaturik feminista eta emakumeak elkartzeko den mugimenduko kideen partaidetza berdintasuneko udal politiken diseinuan, erabakietan eta segimenduan.

Herriko emakume elkarte eta mugimendu feministarekin dagoen elkarlana indartu eta bultzatu.

Jabekuntza eskola sendotzea bertan parte hartzen duten emakumeek berezko tresnak eduki ditzaten, beren arteko harremanak eta sareak indartu eta zabal ditzaten (gazteak, helduak, migratuak, nortasun, sexualitate eta ahalmen desberdinetakoak, e.a.), eta autonomikoki aurre egin diezaieten desberdintasunei eta indarkeria matxistari.

Ikastetxeei zuzendutako baterako hezkuntzako proiektua garatzen jarraitzea eta, orobat, *Beldur Barik* eta *Hi Haiz* programak non sustatzen diren berdintasunean oinarritutako sexualitateak, nesken jabekuntza eta mutilen eginkizuna berdintasunezko harremanen alde, eraso mota guztiak prebenitzeko asmoz.

Indarkeriaren aurkako protokoloa lantzen eta indartzen jarraitzea, batetik, erakundeen arteko lankidetzak hobetzeko eta, bestetik, herritarren kontzientzia eraginkor bat eta edozein indarkeriaren adierazpen eta bazterketa matxistaren aurrean giro ez-permisiboa bultzatzen dituzten kanpaina publikoak sustatzeko.

Martxoaren 8an Tolosan mugimendu feministak deituriko manifestazio zein mobilizazioekin bat egiten du Udalak.

### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA, CON MOTIVO DEL 8 de MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES 2015**

Un año más, el 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, nos ofrece la posibilidad de homenajear la lucha de todas las mujeres del mundo en defensa de sus derechos y, a la vez, de hacer balance de los caminos recorridos. Lo ideal sería que con este homenaje celebráramos la

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

existencia de sociedades igualitarias. Sin embargo, seguimos conmemorando este día para subrayar que, a pesar de los logros, todavía queda mucho por reflexionar y transformar.

Cuando miramos hacia el pasado, solemos visualizar grandes avances en la autonomía y libertad de las mujeres. También percibimos logros en la eliminación de la discriminación legal hacia ellas, así como en su incorporación al sistema educativo y al mercado laboral. Asimismo, solemos ver los progresos en la participación de las mujeres en el ámbito de la política.

No obstante, la autocomplacencia en esos avances está obstaculizando la identificación de las violencias, de las desigualdades estructurales, la falta de reconocimiento social y los micromachismos cotidianos que todavía hoy enfrentan las mujeres. El Movimiento Feminista, movimiento que exige para las mujeres iguales derechos que los hombres, está llamando la atención sobre esta situación, denominándola el “espejismo” o “ilusión” de la igualdad”.

Las preocupaciones feministas nos advierten de la influencia negativa de dicha percepción en sectores de generaciones más jóvenes, quienes están tomando como “normales” conductas de control, acoso y violencia sexista. En tal sentido, según informa Emakunde, aunque la gran mayoría de la población vasca percibe que la violencia contra las mujeres es un problema social grave, se está produciendo un paulatino aumento de la violencia de género en parejas menores de 30 años.

La violencia machista es una expresión del sistema patriarcal, la expresión o consecuencia más grave. En nuestra opinión, la violencia machista es un problema de primera magnitud, en la medida que dicha violencia machista no es un suceso marginal y la vivimos cotidianamente.

Es de mencionar que ya en la declaración del año pasado mencionábamos la amenaza de contrarreforma de la ley del aborto. Vamos a celebrar que, gracias a la lucha llevada a cabo por una mayoría de la sociedad vasca junto con el Movimiento feminista, hemos conseguido parar dicha reforma. De todas formas, están llegando nuevos ataques contra la libertad de las mujeres y contra la diversidad, y así, aunque se haya paralizado la reforma principal de la ley, las mujeres menores de 18 años necesitarán la aprobación de sus padres o tutores para poder abortar. A partir de los 16 años es lícito el matrimonio, sin embargo no lo es decidir si se quiere ser madre o no. Ello no tiene sentido, y su objetivo no es otro que convertir a la mujer en una esposa-madre diligente, mansa y

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

dependiente. Son medidas para reforzar el modelo tradicional de familia heteropatriarcal, columna del patriarcado.

Por otra parte, en la presente situación de crisis, y con el deseo de aumentar la rentabilidad, se han puesto en marcha medidas de austeridad que conllevan el peligro de perder los derechos ganados por medio de una lucha de años.

Aunque las tareas domésticas y de custodia están en la base de la economía, son menospreciadas por el sistema capitalista. Quedan en la sombra, no se reconocen socialmente ni se remuneran. Se les niega incluso el mismo status de trabajo, aún a sabiendas de que son base de la vida, porque son tareas que crean y mantienen la mano de trabajo. Y los conceptos de economía, riqueza y trabajo se asocian con el mundo de las finanzas, con el trabajo remunerado, con el trabajo “productivo”, poniéndolos en el centro de todo. El mercado capitalista se pone en el centro de la economía y al servicio de esta vida, en vez de hacer lo contrario.

Solamente se puede entender el puesto marginal que tienen las mujeres en el mercado laboral y su doble explotación teniendo en cuenta que se les adjudica a ellas principalmente la responsabilidad de los trabajos domésticos y de custodia. Las mujeres cobran un 36,2% menos que los hombres en el mercado laboral. El 80,9% de los trabajadores a tiempo parcial son mujeres. El mercado laboral utiliza a las mujeres como trabajadoras de segundo nivel, defendiendo que su lugar se encuentra, sobre todo, en el hogar. La necesidad de superar el sistema capitalista y patriarcal se nos presenta con más evidencia que nunca para poder poner la vida como centro de la economía, para el reconocimiento de los trabajos de custodia, para acabar con la distribución del trabajo según el sexo, para poder vivir unas vidas dignas.

Por todo ello, este Ayuntamiento adopta los siguientes compromisos:

Fortalecer la igualdad de forma transversal en las políticas municipales, garantizando los recursos humanos y económicos necesarios para el desarrollo, seguimiento y evaluación de las medidas recogidas en el III Plan de igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa.

Reforzar la Comisión de Paridad como un espacio efectivo de interlocución, promoviendo la

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

participación de representantes del movimiento feminista y asociativo de mujeres en el diseño, toma de decisiones, desarrollo y seguimiento de las políticas de igualdad municipales.

Reforzar y promover la colaboración existente con las sociedades de mujeres y el movimiento feminista del municipio.

Consolidar la Escuela de Empoderamiento para que las mujeres participantes dispongan de herramientas propias, fortalezcan y amplíen sus relaciones y redes (jóvenes, mayores, migradas, con identidades, sexualidades y capacidades diversas, etc.) y hagan frente de forma autónoma a las desigualdades y a la violencia machista.

Continuar desarrollando el proyecto de coeducación dirigido al alumnado de los centros de enseñanza, así como los programas *Beldur Barik* y *Hi Haiz, Hi!*, en los que se promueven sexualidades cimentadas en la igualdad, el empoderamiento de las chicas y el papel de los chicos a favor de las relaciones igualitarias, con el fin de prevenir toda clase de agresiones.

Seguir trabajando y fortaleciendo el protocolo contra la violencia, para mejorar la coordinación interinstitucional y promover campañas públicas que favorezcan una conciencia ciudadana activa y un clima no permisivo hacia cualquier manifestación de violencia y discriminación machista.

El ayuntamiento se adhiere a la manifestación y movilizaciones convocadas por el movimiento feminista para el 8 de marzo en Tolosa.

Parte hartzeak:

.. .Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: *“Guk mozioarekin bat egingo dugu, baina azpimarratu nahi genuke, otsailaren 18an emakume eta gizonen arteko Berdintasun Legeak 10 urte bete dituela eta lege honek berebiziko garrantzia izan duela Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun politikak planteatzerakoan, eta gizartean genero ikuspegia antolatzekeo garaian, odezkaritza politikoari dagokionez, hizkuntza inklusiboari dagokionez, kontratu eta dirulaguntzetan parekidetasunerako baldintzak aurreikusteko edota indarkeri egoeretarako protokoloak ezartzeko garaian. Gure gizartea, euskal gizartea, aurrerakoa dela esan dezakegu, non gizon eta emakumeak askatasunez bizi garen eta berdinak sentitzen garen, eta hori bermatzeko baditugu gure lege propioak: lehen aipaturiko berdintasun legea esaterako, edota udal honetan bertan onartutako berdintasun ordenantza. Baina, aurreko aste honetan hainbat komunikabideetan nabarmendu denez, adibide batean, lan arloan eta bereziki soldatari dagokionez, genero ezberdintasuna gertatzen da oraindik ere, gure gizarte*

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

*honetan. Egin dira bi konstatazio, bata, soldata ezberdintasuna generoaren arabera handitu egiten dela geroz eta adina handiagoa izan, eta baita ere, ezberdintasun hori areagotu egiten dela geroz eta soldata bajuagoen kasuan, askotan alde, %30ekoa izateraino. Beraz, oraindik ere, badago bidea egiteko. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna dagoeneko giza eskubide kontsideratzen da, baina teoriak hori onartzen duen arren, errealitatean ezberdintasunak gertatzen dira oraindik. Hori ekiditeko gure konpromiso irmoa adierazten dugu gaurkoan.”*

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: “Beste urtebetez, martxoaren 8koa, emakumeen nazioarteko eguneko adierazpen instituzionala izango litzateke hau, eta termino berdinetan idaztea egokitu zaigu. Testuaren ildotik, iada 100 urtetik gora dira emakume feministek emakume guztiontzako eskubideen alde aldarrikapena sustatu eta borroka hasi zutenetik eta oraindik bidea dago egiteko. Gaur egungo emakume- gizonok borrokan jarraitu behar dugu gizartea aldatzeko, izan ere, gizarte patriarkal eta kapitalista honek emakumeon eskubideak zapaltzen ditu. Egia da, atzera begiratzuz gero, aurrerapausoak eman direla, baina egun zabaltzen ari den ustezko berdintasunak kinka larrian jarraitzen du borroka feministak. Tradizioaren izenean gauzak bere horretan uztea diotenek, gauzak naturalki beraien kabuz aldatuko direla sinestarazi nahi digute. Badakigu ezetz, gizartea aldatzeko aurrerapausoak eman behar dira, lan egin behar da eta borrokan jarraitu beharko dugu. Iaz, abortoaren legea zegoen guztien ahotan. Geratu genuen erreforma nagusia, baina oraindik 18 urterarte ez gara emakumeok aske, beste batzuk erabaki behar dute guretzat zer den onena. Hortaz, EH-Bilduko hautetsiak, martxoaren 8an zein urteko beste 364 egunetan borroka feministarekin bat egiten dugu mundu berri bat sortzeko bidean; lanean jarraituko dugu egunero, zeinetan emakumeok gure bizitzaren eta gorputzaren jabe izango garen, bizimodu duina izango dugun, eta sujeta politiko eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango garen. Beraz, noski, mozioarekin bat egiten dugu eta herritarrak gonbidatzen ditugu martxoaren 8ko inguruan Berdintasun Saitetik antolatutako ekimen ezberdinetan parte hartzera.”

Jarraian, Adierazpen Instituzionala bozketara jarri da eta, aho batez, onartu da.

### **7.-Erregistro Zibilei buruzko mozioa.**

### **7.- Moción sobre los registros civiles.**

Idazkariak mozioa irakurri du. Honek honela dio:

“Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

1, 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.

2, Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.

3. Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jardura izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

4. Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarron datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.

5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.

6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, .*Tolosako* udalaren Osoko Bilkurari eskatzen dizkiogu:

- Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.
- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.
- Kontutan izanda aipatutako Errege Dekretu Legea a indarrean sartuko déla 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.”

Parte hartzeak:

...Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: *“Ikuspegi ideologiko hutsetik, halako proposamen batek, egintza administratibo bat edo administrazioak egiten duen egintza bat edo bere administratuei eskatzen dien tramite bat, hirugarren baten esku utzi nahi du. Iruditzen zaigu ez dela bidezkoa. Izan ere, Administrazioak bere hiritarrei eskatzen dizkien betebeharrak horiek, berak burutu behar ditu, hau da, berak eman behar ditu zerbitzu horiek. Hemen ez da ordaintzen pasaporte edo nortasun agiriagatik, baina hurrengo pausoa hori izan daiteke. Honek ez du zentzurik. Ez gara gaiztoak izango, baina denok dakigu Rajoy jaunak zein lanbide daukan!”*

...Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ/PNV: *“Lehenengo gauza, hemen jartzen du merkataritza erregistroei pasatzen zaiela eta uste dut, oker ez banago, jabeago erregistratzaileei pasatzen zaiela. Dena den, guk bat egingo dugu mozio honekin. Argi utzi nahi dugun lehen gauza da, hau Alderdi Popularrak justizia arloan hartutako beste pauso bat dela. Tasek gaiarekin hasi ziren, eta momentu honetan herritarrok justiziara jo nahi badugu tasa batzuk ordaindu beharrean topatzen gara. Orain, beste pauso bat ari dira ematen erregistro zibilaren privatizazioarekin, eta, gainera, burugabekeria ematen du. Izan ere, kanpotik zein barrutik ikusita, ez da halako inbertsiorik egiten gero beste hirugarren baten esku uzteko. Ez dauka zentzu handirik, baina hau ez da hemen*

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.02.24

*geratzen; hurrengo pauso bat ere badago: proiektu bat dago, zeinak epaibarrutiak murrizten dituen, eta, adibidez, honek ekarriko du Tolosako epaitegia, beste askoren artean, desagertzea. Tolosarrok justizia nahi izanez gero, tasak ordaintzeko obligazioa izateaz gain, kanpora joan behar izango dugu. Inork ez badio STOP jartzen, honako proiektu guztiak aurrera eramango dira.*

*Lehen esan bezala, hau guztia zentzugabekeria bat dela iruditzen zaigu eta, horregatik, guk aldeko bozka emango dugu.”*

...Lore Agirre Zipitria, EHBildu: *“Laburbilduz, azkenean, hau Espainiako Gobernua legealdi honetan eramaten ari den Errege Dekretu murriztaile horietako bat. Zerbitzu publikoen aurkako beste eraso bat da, zerbitzuen pribatizazioa eta merkantilizazioa bultzatzen duena. Oraingo honetan, Erregistro Zibilei egokitu zaie. Legealdi honetan buruturiko beste neurri murriztaile guztietan ikusi da nola beti herritarron bizkarrean jartzen dituzten neurri guzti hauek eta gehiegitxo daukagu bizkargainean. Laburbilduz, honakoa da guk euskalbidea egiteko eta estatu murriztailea alde batera uzteko arrazoi bat. Horregatik, guk, noski, mozioaren alde bozkatuko dugu.”*

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta aho batez onartu da.

### **8.-Tolosaldea Sahararekin G.K.E.-k aurkeztutako mozioa.**

### **8- Moción presentada por Tolosaldea Sahararekin G.K.**

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 39. urteurrenean, Tolosaldea sahararekin elkarrekin **TOLOS**Ako udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu, bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zampaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoak ez bairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adierazten du.

Aurten eskakizun berezia egiten du, giza eskubideen aldeko hainbat eta hainbat elkarrekin egin duten moduan, indarrean dagoen nazioarteko legediari jarraiki, Hassana Aalia ekintzailearen asilo eskaera berraztertu eta onartu dadin. Era berean, gaitzetsi nahi du espainiar gobernu bane sailak Hassana Aaliaren eskaera honi uko egin izana eta salatu nahi du kasu honetan aurreko hainbatetan bezala, espainiar agentzien konplizitatea etengabeko eraso hauekin.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.02.24

- 3.-Mendebaldeko Saharako biztanleak, eurek askatasunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun mugimendu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zaitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.
- 4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, Mendebaldeko Saharako urak bere baitan hartzen dituen artean, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.
- 5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.
- 6.- Espainiar estatuko diputaduen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuari, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.
- 7.-Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 39. urteurrenarekin bat etoriz, 2015ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.

Parte hartzeak:

- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: *“Egia esan, joan den plenoan, Hassana Aaliaren kasua tratatu genuenean, komentatu nuen zein den gure jarrera Sahararen arazo honetan, beraz aldeko botoa emango diogu mozioari.”*
- ... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: *“Urtez urte onartzen dugu aspaldidanik Mendebaldeko Sahararen aldeko mozioa, bereziki, giza eskubideen errespetua eta euren etorkizuna erabakitzeko libre izan daitezela aldarrikatzen dugu, behin eta berriro. Hassana Aaliaren auzia dugu hau; bere asilo eskaerari uko egin dio Espainiako Estatuak eta gaineratu egiten da aurretik dauden egoera penagarriak areagotzeko. Ea denborarekin hau konpontzen den edo konpobidea jartzen den euren etorkizuna hobea izan dadin! Guk, beraz, alde egingo dugu.”*
- ... Lore Agirre Zipitria, Bildu: *“Urtez urte pasatzen den mozioa da hau. Lau hamarkada egingo ditu Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela; lau hamarkada borrokan ari direla, errepresioa jasaten, gerra isilean. Lau hamarkada Nazio Batuen Erakundeak eta Espainiar Estatuak beste alde batera begiratzen dutela, euren erantzukizuna alde batera utziz. Testuak dioen bezala, badakite lapurtzen ari direla, torturatzen, bortxatzen, eta, hala ere, beste alde batera begiratzen dute. Egia da, azken osoko bilkuran, Hassana Aaliaren kasua izan genuela hizpide, gogorazteko 26 urteko gazte sahararra aktiboki bere herriaren askatasunaren alde lan*

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

*egiteagatik bizi osorako kartzelaratu nahi duela Marokok, eta Espainiar Estatuak hori ahalbidetzen duela, asilo politikoa ukatuz. Baina orain, izena jarri dion Hassana Aaliaren kasua bezala, ez dezagun ahaztu beste ehunka kasu daudela egoera berdinean, eta zenbaitzuk badirudi horrela jarraitzea nahi dutela sahararrekin amaitu arte. Beraz, hemendik ez dezatela etsi esan nahi diegu Saharar Herriari. Gure elkartasunik beroena eta indartsuena helaraziz, eta bide horretan, besteetan bezela, gaurko mozioaren alde bozkatuko dugu.”*

Jarraian, mozioa bozkatu da eta aho batez onartu da.

**9.-Gobernu Taldeak aurkeztutako mozioa  
“Oztopoen gaineratik euskaraz biziko  
gara” lemapean.**

**9.- Moción presentada por el equipo de  
gobierno con el lema “Oztopoen gaineratik  
euskaraz biziko gara”.**

Idazkariak mozioa irakurri du. Honek honela dio:

*“Azken urteotan udalak bultzatzen ari diren euskararen normalizaziorako neurrien kontra Espainiako gobernuaren EAeko eta Nafarroako ordezkariak egiten diharduten jazarpen judiziala areagotu egin da 2015ean. Dozenaka errekerimendu eta helegite jasotzen ari dira udalak euskararen normalizazioaren alde eginiko urratsak ezbaian jarriaz. Euskararen normalizazioaren bidean eginiko aurrera pausuak indargetzea da jokaera horren helburua, euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen baitu besteak beste.*

*Tolosako udalak euskaraz bizitzeko asmoa eta gogoia adierazi ditu behin baino gehiagotan. Tolosarrak ere asmo hori erakusten ari dira eguneroko bizitzan.*

*Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak Espainiako ordezkarien jazarpen judiziala salatzeke manifestazioa deitu du datorren otsailaren 28rako Donostian, arratsaldeko 17,30tan.*

*Hori guztiak déla eta Tolosako udalak honokoa onartzen du:*

***Lehenengoa.- Udal honek bat egiten du Kontseiluak deitutako manifestazioarekin eta manifestazio horren leloarekin: “Oztopoen gaineratik euskaraz biziko gara”***

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

**Bigarrena.-** *Herritarrak izanik euskararen normalizazioaren helburu eta protagonista, tolosarrei dei egiten die manifestazioan parte hartzera euskaraz bizitzeko duten konpromisoa aldarrikatzeko modu bat delako.”*

Ondoren, EAJK aurkezten duen mozio alternatiboa irakurri du Idazkariak. Honek honela dio:

*“1.- Tolosako Udalak gogor salatzen du Urquijo, Espainiako Gobernuaren ordezkariaren jarrera, Espainiako 6/1997, apirilko 14ko legeak Espainiako Gobernuaren ordezkariari ematen dizkien eskumenetik haratago, etengabeko judizializazio ariketaren bitartez, hainbat kontutan (bandera espainolek inposizioa, euskara erabilpenari mugak ezartzea, eta abar luze batetan) euskal erakundeen jardura politikoa epaitegien agindupera makurtzen baitu, berez gehiengoaren gogo demokratikoaren arabera naturaltasunez gauzatu beharrean.*

*2.- Eusko Legebiltzarrak 2013ko abenduaren 19an hartutako erabakiarekin bat egiten du Tolosako Udalak Gobernuaren Ordezkariaren jardura herritarren oinarrizko eskubide eta askatasunak murrizten dituela berretsiz eta Gobernu Ordezkaritzaren kargua desagertzea eskatuz.*

*3.- Tolosako Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.*

*4.- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu.*

*5.- Eusko Jaurlaritzari euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunak, bakoitza geure eskumenean esparruan, elkarlanean aritzeko borondatea adierazten diogu herritarren hizkuntza eskubideen defentsan, eta euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin herritarrekin, harreman hizkuntza administrazioen artean eta lan-hizkuntza administrazio barruko eguneroko jardunean.*

*6.- Epaitegietan ematen ari den Euskara Normalizatzeko legearen 8. artikulua interpretazio okerra ikusita, Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio dagoeneko Ganbaran den Udal Lege Egitasmoan agertzen diren 6. eta 7. artikulua babes ditzala, horrela administrazioen arteko harremanak ofizialak diren bi hizkuntzetatik edozeinetan eman ahal izan daitezkeen erabateko segurtasun juridikoz.”*

Lehenik etenaldia eskatu da mozioen inguruan adostasuna lortu ahal izateko.

Etenaldia amaiturik, zinegotzi guztiak bertaratu dira saiora eta parte hartze hauek jaso dira:

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: “Udal Gobernu honek aurkeztu duen mozioak bi osagai dauzka: bata, salaketa, Urquijo jaunarena, euskararen normalizazioaren aurka udalek hartzen dituzten neurrien aurkako jazarpen judizialaren inguruan, eta neurri hauetan Udal hau kaltetua da. Izan ere, jaso ditu Urquijoren aldetik helegite eta salaketak. Eta, bestetik, bigarren helburua herritarrak aktibatzea eta deitzea manifestazioara, bere iritzia ager dezaten eta euskararekin daukaten bere konpromisoa ager dezaten. Zentzu honetan, beharrezkoak iruditzen zaizkigu bi osagaiak: salaketa, Urquijo jaunaren jarrerarena, eta herritarrak aktibatzea eta gizarteari hitza ematea. Izan ere, Urquijo jaunaren erabakien aurka ez dago bakarrik lan instituzionalen beharra, udalak momentu hauetan epaitegietan egiten duen lana. Azken urte t'erdian, udalak lan judiziala eta instituzionala egin du eta bada garaia herritarrak aktibatzeke eta ozen aldarrikatzeko kalean euskaraz hitz egiteko duten nahia eta eskubidea. Bigarren zati hori da faltan botatzen duguna EAJren moztioetik, bestela ez genuke arazorik izango lehenengo 5 puntuak bere horretan onartzeko, hain zuzen ere salaketa egiten duelako, elkarlanerako deia egiten duelako erakunde horretan, eta hori beharrezkoa delako. Tokiz kanpo egongo litzateke 6. puntu hori, izan ere, erreferentzia egiten dio oraindik eztabaidan dagoen lege bati eta bertako hainbat artikuluri, ez dakigu zertan geratuko den hau. Lege horretako 7. artikulua inguruan, ikuspuntu desberdin bat dago gure indarren artean. Horregatik ez dugu ikusten mozioa komenigarri.

Dena dela, esan dudan bezala, hanka motz ikusten dugu. Izan ere, ez ditu hiritarrak deitzen aktibatzerara. Hori dela eta, EAJren kontra egingo dugu, momentu hau herritarrak aktibatzeke momentua dela iruditzen baitzaigu.”

...Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Guk hemen planteatu dugun mozio honetan, azken orduan sartutako mozio honetan, Urquijo jauna orain erabiltzen ari den estrategia salatu nahi dugu (abokatu ejertzito bat boletina begiratzen egunero, argitaratzen diren ebazpen guztiak aztertuz eta etengabe dabil ebazpen guztien inguruan errekerimenduak egiten). Honen arrazoiak asko dira, besteak beste, potoloenak aktak bere ordezkartzara euskaraz bidaltzeagatik, kontratazioan hizkuntza irizpideak txertatzeagatik eta beste mila arrazoiengatik. Ateratzen den edozein erabakiren inguruan errekerimenduak eskatzea eta ondoren errekurtsua tarteratuz demanda aurrera eramatea da Urquijo jaunak erabiltzen duen estrategia sistematikoa, gehienbat Gipuzkoan, gutxi batzuk Bizkaian eta Araban dagoen herri euskaldunenean, Aramaion. Badaki udal txikien kontra egiten duela; badaki, baita ere, udal hauek baliabide ekonomiko gutxi dituztela eta batzuk atzera egiten ari direla. Izan ere, litigio hauetan sartuz gero, koste ekonomiko handia suposatzen dute.

Urquijoren estrategiak suposatzen du bere kontra egitea epaitegietan eta legeen bidez. Hau da guk markatzen dugun estrategia. Udal Legea hor dago; bertan, eztabaidak daude eta potoloenetakoa euskararena izan daiteke. Dirudenez, bide onetik joan liteke. Espero dezagun udal lege hori aurrera ateratzea denen onerako. Badago, baita ere, Euskal Funtzio Publikoaren Legea; oso ondo xedatzen du euskararen tokia, esparru askotan eta espero dugu honek bere bidea egingo duela. Badaude, zenbait puntutan alderdi batzuk kontrari, baina bere momentuan negoziatu eta adostuko da. Badago Euskal Administrazioen Legea, hau ere Legebiltzarrean dago eta esplizitoki Urquijok jaunak errekurritzen dituen zenbait jarduerara barneratzen ditu.

Orduan, gure ustez behintzat, estrategiak izan behar du lege bidez aurre egitea, izan ere, berak badaki hau epe luzean galdutako gerra bat dela. Horregatik, plantzeatzen dugu guk estrategia hau, hau da, lege garapenaren estrategia.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

*Alkatetzak eta Aralarrek aurkezturiko proposamenari ez diogu kontrarik egingo, baizik eta abstenitu egingo gara; hala ere, guk proposaturiko estrategia lehenesten dugunez, horren alde bozkatuko dugu.”*

...Lore Agirre Zipitria, Bildu: *“Ez da eztabaida berria euskara normalizatzeko bidean, euskararen aurkako eraso guzti hauek. Oso tristea iruditzen zait euskararen inguruko mozio bat aurkeztu eta zuek, EAJ-k, kontrako mozioa aurkeztea eta ez gai izatea adosteko. Aipatu, planteamendua besterik ez zela 6. puntua kendu eta herritarrei larunbatean izango den manifestaziora joateko deitzea; hor baitaukagu txokea. Dударik gabe, legez erantzun behar zaie eraso hauei, baina gauza batek ez du bestea kentzen. Herritarrei ez diezue hitzik eman nahi, baina herritarrok badugu zeresana euskararen inguruan. Izan ere, gu gara Euskal Herria osatzen dugunak eta euskaraz bizi nahi dugunak. Gogora ekarri nahi nuke Inaxio Agirre tolosarra, euskaltzale amorratua; berari entzun nion lehen aldiz “amaren sua” metafora, eta eraso guzti haue “gure kultura zein izaera itzali nahi dutela”. Azken batean, aipatutako gure izatea guk defendatu behar dugu, herritarrok kaleak hartu behar ditugu “amaren sua” itzal ez dadin eta horrela jarrai dezagun. Azken batean, gure esku dago Euskal Herria euskaldun bat eraikitzea eta guk, bai, dei egiten dizuegu, herritar orori, otsailaren 28an Donostiako kaleak bete eta Urquijo eta datozen guztiei gogorarazteko euskararen alde jarraituko dugula lanean.*

*Bide batez esan, zuen mozioaren aurka egingo dugula, beste mozioa aurrera atera ahal izateko”.*

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/ PNV: *“Mozioa adosteko ahalegina egin behar du Alkatetzan dagoenak eta honelako urratsik ez dugu ikusi etenaldia egin arte. Modu horretan, beti dago aukera hitz egiteko eta adosteko. Orduan, ez erantzunkizuna guri bota, baizik eta denon erantzukizuna da. Badirudi, hitz egiten duzun eran, gure erantzukizuna dela bakarrik.”*

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: *“Ez gaizki ulertu nire hitzak, baina hor aipatu dizueten gauza bakarra izan da harrigarria iruditzen zaidala kontramozio bezala euskararen inguruko mozio bat plenoa hasi eta 2 minutu lehenago planteatzea. Nik uste, hasieratik izan dela planteamendua herritarrei deialdia egitea. Zer inporta zaizue dei egitea herritarrei Donostira joateko? Noski, legez erantzun behar zaiola Urquijoren portaerari, baina herritarrok badugu zeresana, gure eskubide eta instituzioak erasotuak izaten ari baitira. Harritzen nau zuek ados ez egotea!”*

Jarraian, mozio alternatiboaren bozketa egin da eta EAJ/PNVren aldeko botoekin eta Bildu eta Aralarren kontrako botoekin ez da onartu.

Gero, Udal Gobernuak aurkeztu duen mozioaren bozketa egin da eta onartu ere, Bildu eta Aralarren aldeko botoekin eta EAJ/PNVren abstentzioarekin.

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2015.02.24**

### **10.- Galde-erreguak**

### **10.- Ruegos y preguntas.**

... Igor Ezenarro Balda, Bildu: *“Inauteriak bukatu berriak ditugun honetan, herritar guztiak zoriondu behar ditut. Izan ere, eguraldi txar eta liskar guztien gainetik, eta jai batzordeak egindako balorazioa kontuan izanik, giroa izan da nabarmentzekoa.*

*Liskarrei buruz esan beharra dago, Udaltzainburuak esandakoaren arabera, inauteri normalak izan direla.*

*Bestetik, gaur, martxoko 8aren inguruan, mozioa adostu dugunez, inauterietan sexu eraso bat izan dela esan behar dut. Eraso egin zuen gizona tabernatik aterarazi zuten herritarrak zoriondu nahi nituzke, eta neska horri ere, etxera alde egin beharrean, inauteririk gabe, gizona salatzeagatik, inauterietan disfrutatzen jarraituz.”*

Besterik gabe, gaueko bederatzietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

**ALKATEA FUNTZIOETAN**

**IDAZKARIA**